

TOLOSA / Liburutegiko mailegu txartela egiten dutenek bihar oparia jasoko dute

Liburutegiaren nazioarteko eguna ospatuko dute Tolosako haur eta helduek

Tolosa. Liburutegiaren Nazioarteko eguna ospatzen da bihar mundu osoko hainbat txokotan. Tolosako Errotako haur liburutegian hainbat ekimen burutu dira astean zehar eta biharko ere ekintzak iragarri dituzte.

Hala, bihar liburutegiko mailegu txartela ateratzen duten bazkide berriek oparitxo bana jasoko dute. Bestalde, Tolosako haur liburutegiak ipuinen eta eleberrien irakurketa gida prestatu du, liburutegia gai hartuta. Aipatutako liburuak ikusgai daude aste osoan zehar. Gainera, liburutegiko kamiseten eta liburuen zozketak egingo dira liburuak maileguan eramaten dituzten erabiltzaileen artean. Irabazleei telefonoz deituko zaie hilaren 27tik aurrera. Helduen liburutegian ere antzerako ekintzak iragarri dituzte bihar.

Liburutegiko mailegu txartela ateratzen duten bazkide berriek opari bat jasoko dute. Gainera, liburu zozketa egingo dute liburuak maileguan eramaten dituztenen artean. >m.s.s.